

# GAZTE NAIZ

## Zenbait gizon ote?

Bai, berriz ere orrela diot: Zenbait gizon ote daude, bai eskual errian, bai mundu guzian?

Badakigu iru mila milloi gizaseme daudela, baina nik ez dut ori, alderdi ortatik galdetzen.

Gizona izatez besteenganakoa da, erderaz «altruista»; au da: Soziabla da. Soziabla izateak ongari bikiak dakarzi; baita ere txareriak ekarri dezake.

Ongarriak izango ditugu: Besteen bitartez gauzak obo- to ezagutzea, maitatzea, gizonago egitea, e. a.

Txarrikeriak berriz: Anonimatoan sartzea, masaren bar- nean sartzea, itz batekin GIZON ez izatea, NI ez izatea. Eta ori oraingo zibilizazioan ugari ikusten da; zu ta ni, geok nai ezta, anonimatoan sartuak gaude: bestela aldi batzuetan zergatik joaten gera pelikula au edo bestea ikustera? Jendeak oso pelikula ona dala esaten dualako; eta orrela zenbait alditan jokatzen degu gizon geienok? Bai aldi ugarritan, noski.

Orrela jokatzen degun guztiok ez gera gizon; orregei- tik galdetzen nuben leben, zenbait gizon ote daude?

Nere irudipenez ez ugari, zurean ez dakit. Telebisioak, irratiak, egunkariak, e.a.'rrek esaten digute alondara au jantzitzeko, andik bi astera alondara ura ez duan gizase- merik emen ez dago; ESATEN DANARI jarraitzen diogu.

Egon litezke, bai jauna, gauz onak jarraitu bearrekoak, baina gauz on oiek ere ez al ditugu artzen alditan esaten dutelako?, modan dagoalako? Beste aldi batzuetan baita ere, ez besteak esaten dutelako, baizik geok ikusten degu- lako artzen ditugu.

Gure postura izan bear dala iruditzen zait: Gizonago egiten digun gauza artu, besteak alde batera utzi, gizon be- zela jokatu.

J. A. MUJICA

## ZERTAKO EUSKALDUN?

Alemania-tik.

"Iritzira" jaunari.

eta beste ainbateri.

Esaidazu, mesedez, nun demonio aurkitzen nauzun Unamuna-ren antzeko, nire euskerari buruzko iritzietan.

Izen onik asko gelditzen etzaidan susmoa dut, zuzen- ka edo zearka, aldizkari naiz eskutitzetan ematen ari zaiz- kidan eztenkadetan nabari dezakedanez. Ez dakit zergatik.

Gaur artean beintzat euskaldun —euskeraz itzegiten zuena— eta euskalzale nintzan. Jakin nai nuke zergatik kal- ka-ren prozesaduari gisan niri ere "zakur bati bezalaxe" aitztoa biotzean sartu nai didaten zeintzuek eta neure erri- tarrek. Ain illun mintzatu ote naiz? Ez da bat agertu alde.

Unanimo-k ez bezela euskeraz galdetu dut nik. Eta ez dut galdetu ere egin: galdera or dagola esan dut eta erantzun egin bear dugula. Ez nekien ori ain pekatu beltza zanik. Ua ori danik gaurko Euskalerrria-n aitonen seme- kezur esatea...

"Bildur naiz itzek salduko nautela", esaten nuen. Bil- dur naiz gaur ez ote nauten anaiek eta itxurkeriak saldu

nai. Ez merkaduria txarra, alajaiñetan! Baina nik ez dut saldu izaterik nai, Sgipto-ko aundikerietan ez baitut ames- ik batere oraindik beintzat, Jose izan arren.

Min<sup>2</sup> dut norbaiti nazkagarri banatzaio, min dut be- netan.

Baina nire zerk eman didan txaketero ala unanumista ala burges etabarran itxura jakitekotan gelditzen naiz onartean.

Etzan nire e asmo izan zeruko argia infernuko suarekin piztea. Ez snob saltseroarena jokatzea, ez inor tentatzen libereztzea. Argia eskatzea bai, ez erra sortzea.

Nire pentsamentua gaizki agertu badut prestu nao zuzentzeko. Pakearen, Euskalerrriaren eta neure onerako izango da. Ondo agertu, baina gaizki ulertu bazait, ez dut okerrak zuzendu nai lituzken Figura Trixteko zaldunik abogadu eskatzen. Ixila egitea, alare, eska dezakedan gu- txiena litzake, besterik ez bada ere. Beltz naiz garri, jus- tizia apur bat eskatzeko eskubidean nagola itxaro nai bai- nuke.

JOSE AZURMENDI

## Go miga jaunari

Emakumeñatik ari zeralako, «Jauna» izango zerala uste dut.

Berreun eta amaikagarren Z. AR- GIAN, zuk «Gurea dugu» izena- kin egin duzun lana irakurri dut, eta gutaz, nesketaz alegia, ez jakin xamarrean ote zagozen iruditzen zait.

«Pasa aurrera euskeraz egiteaz lo- tsatzen zeraten burumuin gabeko neska!» itz sorta ori ez ote duzu errezegei esan?

Nik ere ba dakit, euskeraz itz egin nai ez duenen artean neska ba dirala, baina... ez auk bakarrik.

Eta euskeraren alde lanean ari di- ramen artean berriz neska asko dago. Ia zenbat diran Euskalerrri osoan zear ikastoletan euskeraz erakusten ari diran neska. Donostiko San Ina- zio kolejoan bertan, amar neska ta zortzi mutill ari omen dira, ta auk danak apaizgaiak.

Ni emakumea, neska naiz, eta egiten ditugun billeratan edo zein gai izan arren euskeraz itz egiten dugu, ta beste aldetik berriz, Eus- kalerrriaren alde ari diran mutill as- kok naiz eta gai aukin izan, erde- raz.

Treanean ere noiz nai ikusten di- tugu neska gazte apaiñ eta polit as- koak beren kontu guziak euskeraz esaten, eta ez besterik ez dakitela- ko, baizik eurena maitego dutelako.

Esan didatenez telegonistak ere asi omen dira pendeakin euskeraz itz egiten. Ueroni ere gertatu zait. Urrutzikiña artu ta:

—Nor da?

—Emen telefonikatik.

Askengoz len aitatu dudana «... Gurea Dugu» orixe irakurtzen ari nintzala, eta orduntxe esan nun ne- rekiko: «Go Migak bere arrazoiia izango du ori esateko, baina gureak ere jakitea komeni zaio».

Bear bada len ere jakingo zenitun. Baldin ala bada, oroituz azaizi egin nai dirkizut.

Baiañ ez uste izan naikoa egiten dugun pozakin nagonik. Bakontzak gure lantokietan zer egin aundia du- gu, lagunekin eta kanpokoekin.

Eta urrutizikiñakin berriz zer esa- nik ez. Izan ere tresna au artu ta aurrenengo itza euskeraz esaten ba duzu, beste aldekoak baldin ba daki beintzat, berdin erantzungo dizu, ta ez ba daki ez da ixilduko. Onek gu- txinetik gure ikuntza ba dugula ja- kingo du ta ibiltzeko gañera.

ZERUKO ARGIAN ere ba dute zer ikasia. Inoiz deitu izan du- nean «Digame» esan bai dit an ate- ratzen dan «gizonezkoak».

Baiañ GO MIGA, au guizentzat. Neska ta mutill, gizon eta emakume, pralle ta moja, basarri ta kaletar, beartsu ta aberastentzat.

Nai duzun arte.

O'tar ARANTZAZU

**inter**  
radio **tv**

Saltzaillea:

**CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.**

Beste edozein markakoa balño  
Iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Ordaintzeko erreztasun aundiak